



SUDAN 2009 Amani eta Samir beren hiru seme-alabekin. Amani haurra zela ablazioa egin zioten eta horren ondorioz arazoak izan ditu bizitza guztian. Alabek (4 urteko Shimus eta 18 hilabeteko Donya) berdina ez pairatzea erabaki dute berak eta senarrak, eta komunitatearen aldetik sekulako presioa jasaten ari dira.

katoak karga ekonomiko modura hartzen dira. Horregatik, lehenbailehen ezkontzea familiarren biziraupenerako irtenbide modura ikusten dute. Badira, gainera, ezkontza horiek babes modura ikusten dituztenak ere: ezkontuta egoteak neskatoa eraso sexualen aurrean babestu egiten duela uste dute, eta, gainera, neskatoa zainduko duen gizonezko baten esku dagoela sentitzen dute. Generoagatiko diskriminazioa ere egon daiteke neskatoen ezkontza horien atzean: artean haurrak direla ezkontzen diren emakumeak otzanak eta obedienteak dira. Eta beren ugalkortasunari probetxu handiago atera dakioke».

AHALEGINA BIKOIZTU BEHARRA

Hartara, eta egoerak hobera egin duen arren, Londresko Gailurretik zabaldutako mezua garbia izan da: «Jendarteko eragile guztiek ekintza zuzenagoak eta eraginkorrak bultzatu ezean, ehunka milioi neskatok min ikaragarriak, sendaezinak eta beharrezkoak ez direnak sufritzen jarraituko dute».

Izan ere, ablazioaren eta haurren ezkontzen beherakada oso erritmo mantsoan gertatzen ari

da. Eta erritmo berdinean jarraitzen badu beherakadak, Unicefetik egiten duten kalkulua beltza da oso: «Demografiaren gorakada tarteko, orain arteko joerarekin jarraituz gero haurrak direla ezkontzera behartutako nesken kopurua berdina mantenduko da 2050. urtera arte. Eta 700 milioi baino gehiago izaten jarraituko dute. Eta beste 63 milioi ablazioa sufrituko dute 2050. urtera bitartean».

Horiek horrela, helburua da haurren ezkontzen eta ablazioaren beherakada bikoiztea datozen urtetan, aipatu zenbaki horiek benetan jaits daitezzen. «Estatistikek eta datuek erakusten digute gure ahaleginak bikoiztu egin behar ditugula. Ez

dezagun ahaztu zenbaki horien atzean benetako bizitzak daudela. Eta arazoa mundu mailakoa bada ere, irtenbideak tokian-tokian topatu behar dira». Unicefetik behin eta berriz nabarmentzen dute komunitateek, familiek eta neskatoek eurek lan egin behar dutela praktika krudel horien aurka, «jarrerak eta ikuskerak aldarazi behar dira ablazioa eta haurren ezkontzak ez daitezen betirako ohitura bihurtu».

Eta zenbakiak beldurgarriak badira ere, Londresko gailurretik zabaldu duten mezuan ez da etsipenik kabitzen: «Ezin dugu onartu estatistikek eta zenbakiek gu zapaltzea. Aurrera egiteko akuilu izan behar dute».

Ablazioaren oinarrian alor desberdineko sinismenak daude. Tartean, sexualak, emakumearen sexualitatea apaltzea eta kontrolatzea baita helburu nagusietakoa

Neskatoen ezkontzen atzean generoagatiko diskriminazioa ere badago: artean haurrak direla ezkontzen diren emakumeak otzanak eta obedienteak direla uste da

Ekidistantzia

Koldo Sagasti

Demagun herriko jaien testuinguruan gertatu ohi diren eraso sexista baten harira hedabide bat erasotzailearen jarrera justifikatzen saiatzen dela. Eman dezagun argudiatzen duela bortxaketa biktimaren probokazio batek eragin duela, bere janzkeraz eta jarreraz oldartzailea zirikatu duela, eta horrek probokazioei erantzutea beste irtenbiderik izan ez duela, eta, gainera, erasotakoak ere indarkeria baliatu duela defendatzeko. Imajina dezagun komunikabide horrek erantzukizun maila berbera leporatzen diela borrareroari eta biktimari, eta jazarpen sexistak amaitzeko euren jarrerai amore eman diezaietela eskatzen diela bi alderdiei. Nekez irudika dezakegu argudiatze lizunagorik. Iritzi publikoak gurutziltzatu egingo luke baieztapen higuigarri horien egilea.

Eta bortxaketaren biktima bat izan beharrean 1.700.000 izango balira? Eta eraso bat-batekoa izan ordez egunerokoa balitz azken 66 urteotan? Eta garbiketa etniko estrategia kalkulatu eta sistematiko baten emaitza izango balitz? Bihur ditzagun ekuazioaren aldagaiak eta eman dezagun borrareroa Israelgo Estatua dela, eta, biktima, Gazako herritarrak. Jo dezagun bortxatzaileak indarkeria bortitza baliatu duela ihesbiderik gabeko harrapakina garbitzeko. Eta hedabideek, aho batez, argudio berberak baliatzen dituztela: Israelek gazatarren probokazioei erantzunez burutu dituela erasoak, palestinarrak ere bortizkeria baliatu dutela bortxaketari aurre egiteko, eta alderdi guztiek erantzukizun maila berbera daukatela... Orduan argudiook ez dirudite hain tokiz kanpokoak, ez dirudite hain lizunak, aitzitik, baieztapen horien egilea kazetari objektibo eta zentzuduntzat hartuko dute askok, profesional peto-petoa. Baina kazetari hori ez da objektiboa, jarrera argi bat hartu du: bortxatzaileari zilegitasuna ematea. •